

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2021EKO MARTXOA


Euskal AEko industria-jarduerak % 12,2 egin du gora 2021eko martxoan

2021eko lehen hiruhilekoko metatuan, Industria Produkzioaren Indizea % 0,9 jaitsi da

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko martxoan % 12,2 hazi da Euskal AEko industria-produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousan, 2020ko hil beraren aldean. 2021eko lehen hiruhilekoko balantzean industria-jarduera % 0,9 jaitsi da.

Urtaroen eragina behin zuzenduta, 2021eko martxoa eta 2021eko otsaila alderatuta, Euskal AEko industria-produkzioa % 0,7 hazi da.

Kontuan hartu behar da ezen 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera ezarri zela COVID19aren pandemiari aurre egiteko, zeinek industria-jardueraren zati handi baten garapena mugatu baitzuen.



2021eko martxoko indizearen bilakaera, 2020ko martxoarekin alderatuta, desberdina izan da industria-sektore handietan: *Ekipo-ondasunak*, non motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbideko materialaren egitea edo aireontziak edo itsasontziak egitea barruan dauden, % 21,4 igo dira; *Bitarteko ondasunak* % 17,6 igo dira (horien artean daude metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa).

Kontsumo-ondasunek, oro har, % 9,8ko urte arteko igoera izan dute, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* % 45,9ko eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* % 3,4ko igoerek eraginda. *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* epigrafean altzariak eta etxeko tresnak fabrikatzeko jarduerak ageri dira. Elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* sektore handiaren barruko jarduerak.

Energia (energia elektrikoaren hornidura eta petrolioaren fintzea barne), aldiz, % 17,0 jaitsi da.

Hil arteko aldakuntza, 2021eko martxoa 2021eko otsailaren aldean, positiboa da industria-sektore handi guztietan ere, salbu eta *Energian*, % 5,4 jaitsi baita. *Ekipo-ondasunak* hil artean % 2,6 hazi dira, *Bitarteko ondasunak* % 0,9 eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 6,2; izan ere, *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 15,1 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak*, % 4,2.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2021eko martxoa

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Mar2021 / Mar2020	A(Mar2021) / A(Mar2020)(*)	Mar2021 / Ots2021	Ots2021 / Urt2021
Indize orokorra				
Euskal AE	12,2	-0,9	0,7	-1,0
Araba/Álava	21,2	-2,0	0,1	-3,4
Bizkaia	1,3	-4,1	0,6	0,5
Gipuzkoa	19,0	3,0	1,1	-1,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	9,8	0,3	6,2	-0,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	45,9	13,7	15,1	-3,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	3,4	-2,7	4,2	-0,4
Ekipo-ondasunak	21,4	-0,9	2,6	-3,3
Bitarteko ondasunak	17,6	1,4	0,9	-1,6
Energia	-17,0	-13,4	-5,4	-1,5

(*) 2021ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2020eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2021eko martxoan, urte arteko terminoetan, honako sektore hauek izan dituzte hazkunderik handienak: *Kautxua eta plastikoa* (% 41,9ko hazkundera), *Garraio-materiala* (% 38,9ko igoera) eta *Makineria eta ekipoa* (% 17,6ko igoera), betiere egutegiaren eraginak zuzenduta.

Urte arteko bilakaera negatiboa izan duten sektore garrantzitsu bakarrak honako hauek izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 13,1 jaitsi da) eta *Zura, papera eta arte grafikoak* (% 0,7 behera).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	12,8
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-13,1
09 - Kautxua eta plastikoak	41,9
13 - Makineria eta tresneria	17,6
14 - Garraio-materiala	38,9
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	5,7
12 - Material eta tresneria elektrikoa	16,2
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-0,7

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Martxoko Industria Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan. Hala, Araban % 21,2 hazi da, eta Gipuzkoan % 19,0. Bizkaian bilakaera apalagoa izan da, urte arteko % 1,3ko igoerarekin.

Hil arteko terminoetan, 2021eko martxoan 2021eko otsailaren aldean, eta urtaro-eraginak atera ondoren, Gipuzkoan produkzioa % 1,1 hazi da; Bizkaian eta Araban, berriz, % 0,6 eta % 0,1 igo da, hurrenez hurren.

INFORMAZIO OHARRA

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaietan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, martxoko indizea laginaren % **94,53ko** estaldurarekin kalkulatu da –horren informazioa apirilean gaindi jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62